



BERGARA

Udal aldizkaria | 02 zenbakia | 2008ko ekaina

ELKARTEEN TXOKOA >08

Pol-Pol mendizale taldea

UDAL ARTXIBOAK SINATUA >09


Uholde esanguratsuenak gogoan

HIRIGINTZA >14

Uztailean emango zaio onarpena Plan Orokorriari

GIZARTEA >17

Plaza gehiago izango dira Bergarako eguneko zentroan



GAI NAGUSIA >04

**AHT:
KEZKAK
SORTZEN
DITUEN
EGITASMOA**



Zenbaki honetan...

03 EDITORIALA

04 GAI NAGUSIA • AHT: kezkak sortzen dituen egitasmoa



06 HERRITARRAK KAZETARI

06 GALDERAK

07 IRITZIAK



08 GURE BERGARA

08 ELKARTEEN TXOKOA • Pol-Pol mendizale taldea

09 UDAL ARTXIBOAK SINATUA • Uholde esanguratsuenak



10 UDALA

10 GURE 12 ERRONKAK / Gehigarria /

14 HIRIGINTZA

15 KIROLA

16 KULTURA

17 GIZARTEA

18 EUSKARA

19 UDALBATZARRAK



BERGARAKO UDALA

San Martin Agirre plaza, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel: 943 77 91 00
Faxa: 943 77 91 63

www.bergara.net

TELEFONO INTERESGARRIAK

Agorrosin	943 77 70 95
Alkatetza	943 77 91 01
Angiozarreko liburutegia	943 76 16 19
Artxiboa	943 77 91 32
Enpresa komitea	943 77 91 73
Euskaltegia	943 76 44 53
Euskara	943 77 91 66
Gizarte Ongizatea	943 77 91 65
Hirigintza eta ingurumena	943 77 91 68
Idazkaritza	943 77 91 00
Igerilekuak	943 76 20 51
Informatika	943 77 91 37

Kanposantua	943 76 27 81
Kirolak	943 77 91 67
Kontuhartzaitza-Hazienda	943 77 91 64
Kultura	943 77 91 58
Labegaraietako kiroldegia	943 76 56 41
Liburutegia/Kultura Etxea	943 77 91 62
Mizpirualde egoitza	943 76 13 68
Obrak eta Zerbitzuak/Udal biltegia	943 77 91 52
Ondare artistikoa/museologia	943 77 91 62
Osintxuko liburutegia	943 76 23 76
Udaltzaingoa	943 77 91 06



Lehenengo urteko balantzea

AGURNE BARRUSO | BERGARAKO ALKATEA



Urtebete da Udal Gobernuia eratu zela. Urte hau laburra bezain intentsua izan da. Laburra, konturatu orduko pasa delako eta intentsua herrian eta Euskal Herrian gertaera asko eta garrantzitsuak izan direlako.

Ez da urte erraza izan. Bergaran izan ditugu aferak korapilatsuak: eskolen arteko gatazkak nahikoa buruko min eta sufrimendu ekarri dituzte, Abiadura Handiko Trenak izango duen eraginak bergarar asko eduki ditu eta dauzka loak hartu ezinda, Udal Planeamenduaren prozesuak ere sortu ditu kezka eta ziur nago gutariko bakoitzak badituela bere arantzak urte honetan gertatu direnen inguruan.

Euskal Herrira begiratuz gero ere urtea gogorra izan da: Loiolako prozesua hautsi da,

“

Udal Gobernuak indarrez eta ilusioz ekin zion legegintzaldiari eta urtea pasa den arren, berdintsu segitzen dugula esango nuke

”

bortizkeria-aurpegi guztiak azaleratu dira, Udal ordezkarien aurkako jazarpen politiko / judiciala areagotu da eta duela urtebete gurekin lan politikoan, elkarlanean, ari ziren hainbat lagun kartzelaratu egin dituzte. Puntu honetara iritsita, gogora ekarri nahiko nuke ni bezala alkate izateagatik kartzelaratu duten Ino Galparsoro. Eta ez bera bakarrik Bergaran bertan baitaizkagu hainbat adibide.

Urtea gogorra izan dela aitortuta ere, baditugu ilusiorako arrazoiak. Udalak bere atek ireki dizkio Bergarari eta urte honetan asko eta asko izan dira herritarrek eta herriko eragileekin iritzia eskatzeko, kontsultak egiteko eta elkarlanerako izan ditugun bilerak. Elkarlanean sakondu egin behar dugula uste dudana arren, bidea egiten hasi garela esango nuke eta zerbait egin nahi badugu, hastea ezinbesteko urratsa da.

Bergararen etorkizunerako oinarrizko proposamena luzatu diegu bergararrei eta beraien iritzia jasotzeko bideak jarri ditugu eta baita iritziak eta ekarpenak jaso ere. Lanean ari gara proposamena garatzeko eta jasotako horiek proposamenean txertatzeko.

Euskal Herrian ere bere gogortasunean une garrantzitsuak dugu hau. Bidegurutzean gaude. Oraintxe dugu aukera herri honi dagozkion eskubideak errespetatuz gatazka gainditzeko edo, berriz ere, gatazka faltuan itxi eta urteetarako sufrimendua eta ukazioa luzatzeko.

Beraz, iragandako urte intentsua izan dela esan dugu, baina datorrena ere intentsitate berdinarekin dator eta etor bedi, Udal Gobernuia lanerako kemenez, gogoz eta ilusioz dago eta.

ANALISIA

Udal gobernuaren lehenengo balorazioa eta Abiadura Handiko Trenaren egitasmoa aztergai udal aldizkariaren bigarren zenbakian.

Udal gobernuaren lehenengo urteko balorazioa egin du Agurne Barruso alkateak lehenengo orri honetan. Gainera, herritarren interesa pizten duen Abiadura Handiko Trenaren egitasmoaren gaineko erreportajea irakurtzeko aukera izango dute bergararrek udal aldizkariaren bigarren zenbakian.

Bergaran 30 bat lurjabe jasango dituzte egitasmoaren eraginak, batez ere, Angiozar auzoko bizilagunek. Kimetz Etxeberria Munitxa ingeniariari, Mila Elorza Angiozarko auzo alkateari eta Hilario Manzanedo ekologistari egin diegu elkarrizketa.

Gure Bergara atalean Pol –

Pol mendi elkarteak da protagonista nagusia. Elkartearen historiaren erreposoa jasotzen da eta etorkizuneko erronka nagusien berri ematen digute Pol Poleko arduradunek. Gainera, atal horretan, udal artxiboak sinatzen duen kronikan, historian Bergaran izandako uholdeak dira aipagai.



AHT: KEZKAK SORTZEN DITUEN EGITASMOA



Proiektuaren araberako trazatuaren fotomuntaia.

Abiadura Handiko Trenaren egitasmoak zenbat kilometro ditu Bergarako lurretan? Zein izango da trenbidearen ibilbidea, baldin eta hura egiten bada? Zenbat zubi eta tunel izango ditu? Galdera horiei erantzutea ez da lan erraza Bergarako bizilagunentzat. Udalak proiektuaren gaineko Eusko Jaurlaritzaren planoak du esku artean, baina oraindik ez du Euskadiko administrazioaren proiektu basikoa jaso, eta legez Jaurlaritza lurjabeekin berba egiten hasi aurretik derrigortuta dago proiektua aurkeztera. ADIF Espainiako trenbideak administratzen dituen erakundeak, berriz, orain hilabete helarazi zion proiektua Bergarako Udalari eta orain helegiteak aurkezteko epea ireki da. AHT Gelditu! elkarlaneko kide Mila Elortza, Kimetz Etxeberria Munitxa eta Hilario Manzanedok salatu dutenez, "ADIFek aurkeztutako proiektu basikoa ez da egokitzen aldeztu aurretik aurkeztutako txosten informatibora. Aldaketak egin dituzte. Proiektu basikoan Kortazar eta Udalatxeko tunelak bikoiztuta ageri dira, guztira lau tunel, eta kota igo egin dute jaisi beharrean. Kalteak handiagoak dira orain". Angiozarren, esaterako, herritik oso gertu igaroko

Abiadura Handiko Trenaren egitasmoak kalteak eragingo dizkie Bergarako 30 lurjabe ingururi. Horietatik gehienak bizi dira Angiozar auzoko bailaran. Gainerakoek Labegaraietan eta Ipiñarri dituzte lurak



da, bertan izango du tunelaren irteera eta 200 metro inguru lur gainetik abiatuko da trena. Mila Elortza-ren esanetan; "horrek ondorio larriak izango ditu Angiozarrentzat. 90 dezibeliotik gorako zarata jasan beharko dugu. Hau da, aireportu baten bizitzeari baino okerragoa izango da Angiozarren bizitzea".

Galdera asko, kezka ugari eta makina bat zalantza eragin ditu Abiadura Handiko Trenaren egitasmoak Bergaran. Maiatzean Espainiako trenbideak kudeatzen dituen erakundearen proiektu basikoa jaso zuen Udalak. Eusko Jaurlaritzak, berriz, oraindik ez du oinarriko proiekturik helarazi, plano bat soilik. AHT Gelditu! elkarlaneko ordezkariak Udal ordezkariekin batera alegazioak aurkeztu dizkiote proiektu basikoari.

PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK BERGARAN

Bergaran, beste inon ez bezala, Abiadura Handiko Trenaren proiektua Espainiako zein Euskadiko administrazioek kudeatuko dute. Elorrio-Angiozar eta Angiozar-Arrasate tartean ADIF Espainiako trenbideen egiturak administratzen dituen erakundeak kudeatuko ditu, eta Angiozar-Antzuola korridorea Eusko Jaurlaritzak. AHT Gelditu! elkarlaneko kideen iritziz, "horrek nahasmena besterik ez dakar. Proiektuaren gainean dauden kezka eta zalantzak areagotzeko balio du eta informazioaren argitasunaren kontraria da".

ADIF erakundeak Udalari helarazitako oinarriko proiektuaren arabera, Angiozar auzoa eta Ipiñarri inguruak izango dira gunerik kalte-tuenak. Angiozarko bailara zeharkatuko du trenak, errekaen ibilbidea jarraituz, errekaen albotik abiatuko da eta beste batzuetan errekaen gainetik zubien bitartez. Mila Elortzak jakinarazi digunez, "lur mugimendu handiak egingo dituzte, baina lur soberakinak nora eramango dituzten oraindik ez dakigu. Dakiguna da erakuntza lanek kalte ugari eragingo dituztela, 8 metro zabaleko pistak asfaltatuko dituztela eta ingurua txikituko dutela".





EN CONTRA DEL TAV

El Gobierno Municipal de Bergara comparte las protestas que desde la asociación AHT Gelditu! Elkarlana están llevando a cabo en toda Euskal Herria. Desde el Ayuntamiento se han presentado varias alegaciones al proyecto del tren de alta velocidad presentado por Fomento y dichas alegaciones han sido redactadas con el asesoramiento de varios miembros de AHT Gelditu. En este reportaje se recogen, entre otros, los testimonios de Mila Elorza, alcaldesa del barrio de Angiozar, Kimetz Etxebarria Munitxa, ingeniero y técnico del Ayuntamiento de Elorrio y del ecologista Hilario Manzanedo.



Angiozar auzoa.

30 LURJABEK BAINO GEHIAGOK JASANGO DITUZTE KALTEAK

Bergaran Abiadura Handiko Trenaren egitasmoak kaltetutako lurjabe kopurua zenbatekoa den jakitea ez da samurra. "Uste dugu 40 lurjabe jasango dituztela egitasmoaren kalteak. Batez ere Angiozarko bailarakoak dira, baina Labegarietako eremuan eta Ipiñarritik Antzuolarako tartean ere badaude", adierazi digu Kimetz Etxebarria Munitxak. Kaltetuen elkarte sortzeko lanetan hasi dira eta ordezkariak ere hautatu dituzte. Ibarreko beste herri batzuetan ere zenbait lurjabe eta baserriarrek elkarteak eratu dituzte, abokatu bat kontratatu eta proiektuari alegazioak aurkezten hasi dira. Aramaion, esaterako, hilero elkartzen dira Zabola, Azkoaga eta beste zenbait auzotako baserriarrek abokatuarekin, proiektuaren nondik norakoak aztertzeko.

BERGARAKO UDAL GOBERNUA, PROIEKTUAREN KONTRA

Abiadura Handiko Trenaren proiektuaren kontra dauden bergararrek helburu bakarra dute, Abiadura Handiko Trengeldiaraztea. Horretarako, argudioz bete dute beraien oposizioa: "Uste dugulako AHTren proiektuak gizarte eredu ustela proposatzeaz gainera, ingurumena txikituko duela. Ingurumen kalte larriak sortuko ditu, ez ditu kamioiak errepidetik



Angiozarreko murala.

aterako eta ez dio gizarteari erantzunik emango", diote Kimetz Etxebarria, Mila Elorza eta Hilario Manzanedok. Era berean, AHT Gelditu! elkarlanean dihardutenen iritziz, azpiegitura erraldoien hazkundearen etena ezinbestekoa da: "Europan ere dagoeneko ez dira horrelako proiektu erraldoiak egiten, ekonomia erduetan oinarrituta ere azpiegitura erraldoiak ez dira bideragarriak, mantenu oso garestia delako eta ez direlako errentagarriak". Bergarako Udal Gobernuak ere antzerako iritzia du eta elkarlaneko kideekin dihardu lanean, proiektuari helegiteak aurkezten, herrian informazioa zabaltzen eta kaltetuei babes ematen. Oposizio alderdiak, berriz, proiektuaren alde daude: Euskadiko azpiegiturak hobetzeko ezinbesteko proiektua dela diote.



Erakusketa ibiltariko panel informatiboak Bergarako kaleetan.

EL AYUNTAMIENTO QUIERE MANTENER REUNIONES Y UN ÁMBITO DE TRABAJO CONJUNTO CON LOS AFECTADOS DIRECTOS, DIVERSAS ASOCIACIONES Y AHT GELDITU ELKARLANA

Los propietarios de los terrenos por donde se ha proyectado el trazado quieren responder conjuntamente a las propuestas de FOMENTO y del Gobierno Vasco. La primera reunión del Gobierno Municipal fue con los miembros de AHT Gelditu! elkarlana.

Hace unas semanas se reunieron con los propietarios de los terrenos de las zonas afectadas por el proyecto del Gobierno Vasco, entre Bergara y Antzuola. En los próximos días se reunirán con los afectados de la zona de Angiozar.



GALDERAK

Aurrera jarraitzen al du Arrizuriaga jauregian Udal Liburutegia jartzeko asmoak?

A. L.

Udal Gobernuak egindako proposamenaren arabera, Udal Liburutegia Errege Mintegian kokatuko genuke eta Arrizuriaga jauregian UNEDen hainbat zerbitzu. Proposamena oraindik proposamen fasean dago eta sozializazio-prozesuan jasotako iritziak eta ekarpenak bertan

nola integratu lantzen ari gara. Bestalde, eta bileretan azaldu genuen moduan, ez da proposamen itxia eta, gainera, berau gauzatzearen aukera ez dago gure esku bakarrik. Beraz, oraindik gauzak guztiz zehaztu gabe daude. Dena den, Udal Gobernuaren iritzia da liburutegia hobeto dagoela Errege Mintegian eta UNED Arrizuriaga jauregian.

Agurne Barruso / Alkatea


Bergaran jende asko dago kultura arloan mugitzen dena. Zaletasun handia dago, musika, dantza, antzerki, txontxongilo eta beste zenbait talde ere badira. Baina, auditorium ganorazkorik ez du. Kultura ekipamendurik ez dago... badu Udalak zerbait egiteko asmorik?

E.I.

Udalak bere proposamenean ere jaso zuen kultura-ekipa-

mentuen beharra.

Auditoriuma egiteko proposamena ere eginda daukagu. Gure iritzian auditorium berriak askoz aukera gehiago eta hobekak emango ditu orain Miguel Altuna dagoen tokian eginda. Horrek obrak 2011n hasiatea dakar. Dena den, gure ustez merezi du. Bestalde, Zabalotegin udazkenean irekiko da formatu txikiko ekitaldiarako aretoa.

Agurne Barruso / Alkatea


Kanpoko igerilekuak egin-go dituzue gaur egun berdegunea dagoen tokian, baina txukun geratuko da? Badago igerilekua eta gune berdea elkarrekin eta ondo egoteko lekurik?

M. J.



Txukun geldituko da eta berdegunea eta putzua elkarren ondoan kabitzen dira. Momentu honetan proiektua berridazten ari gara; izan ere, aurreko proiektu hartatik legeak ere aldatu dira eta beste hainbat alderdi hobetzen saiatzen ari gara.

Agurne Barruso / Alkatea

San Martzialen badago kantina bat, baina urtean zehar itxita egoten da. San Martzial ingurua pizteko ez litzateke ona izango kantina irekitzea urte osoan? Zer egin dezake Udalak hori bultzatzeko?

S. N.



Inoiz bururatu zaigu guri ere ideia hori, baina mamitu gabe daukagu. Galdera hau iradokizun moduan hartzen dugu eta aztertuko dugu San Martzialen dituen potentzialitateak eta aurkakotasunak.

Agurne Barruso / Alkatea

Galderak jasotzeko aldizkaria@bergara.net helbidean edo udaletxe atariko postontzian.

Ez da komeni 200 karaktere baino gehiagoko galderak bidaltzea. Galdera guztientzat lekurik ez bada, hurrengo zenbakirako gordeko dira.



Munduko kulturen festa Bergaran

Iaz garai honetan iritzi artikulua idatzi nuen Goienkarian. Debagoieneko Mankomunitateak eta Euskal Herria aldizkariak antolaturiko eta zenbait erakunde pribatuk babesturiko Mundumira munduko kulturen festa goraipatzeko eta antolatzaileak zoriontzeko idatzi nituen zenbait lerro.

Aretxabaletako jaiarekin disfrutatzeko aukera izan nuen eta gozatu ederra hartu nuela onartu behar dut. Aurten, Bergarak egin dio harrera Mundumira jaialdiari eta, ekainaren 6tik 8ra bitartean, Bergarako kaleetan izandako giroa elegantea izan da. Domeka eguerdian gerturatu nintzen Bergarara eta benetan gustura ibili nintzen: seminarioko espazioan zerbait jan, San Martin Agirre plazan talde iraniar baten musika doinuak entzun, Ibargarai kalean oparitxo bat erosi, kaleko animazioaz gozatu... festa ederra da Mundumira.

Kultura eta turismo ikuspegitik Debagoieneko Mankomunitateak azken urteetan egingandako apusturik sendoena eta herritarrentzat ikusgarriena. Argi dagoena da indarra hartzen ari dela. Arrasaten, jai berritan, ez zuen aurreikusitako emaitzik izan. Oñatin hobekuntzak izan ziren eta jendearen parte hartzea arrakastatsua. Aretxabaletan, herriarentzat inoizko urteetan izandako festarik handiena izan zen Mundumira, eta aurten Bergaran, aurreikuspen guztiak gainditu ditu.

Zorionak beste behin Mundumirari. Argi dago eskaintza ona dagoenean herritarrek eran-

tzuten dutela. Lanaz haratago badago bizitza gure ibarrean.

Iker Arana

Euskara, guztion erronka

Euskarak gero eta toki zabalagoa du gure gizartean, euskararen erabilera bultzatzeko HITZARMENA sinatu dugu Udalak eta herriko 84 entitatek; helburu eta konpromiso hauekin: Ezagutza eta hizkuntza gaitasuna, Euskararen barne erabilera, Euskararen kanpo erabilera, Hitzarmen kideen arteko harremanak eta beste entitate batzuekiko harremanak, Hitzarmenaren dinamizazioa, jarripena eta laguntzabideak eta Hitzarmenaren iraupena.

Uda iristear dagoen honetan baditu euskarak erronka ugari: barnetegiak, UEU, trinkoak... badugu non egin apustu: ikasi, mintzapratika egin, opor aurreko ahalegintxoak, dirutxo bat ere badugu laguntza gisa. Udal euskaltegiak 25 urte betetzen ditu aurten eta urteurrena ospatzeko; afora, hitzaldi, antzerki... momentuak merezi baitu.

Urteetan grabatu, gorde, transkripzioak egin eta orain Bergarako euskeriaren altxorra dugu. Lehenengo grabaketak badituzte 25 urte, orain teknologiak aukera emango digu nahi ditugunean entzun eta euskararen altxor horretaz baliatzeko, bejon deiela lan hori hasi zutenei. Aurkezpen ekitaldia ekainaren 27an egingo dugu.

Hurrengo urteetarako EBPN

(euskara biziberritzeko plan nagusia) ere martxan dugu, pausoz pauso aurrera.

Apustu eta erronka berri bat: Udal euskaldunen mankomunitatea UEMA, 3 helburu orokor konpromiso gisa: udalerrri euskaldunetan herritarrek egingen duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua euskaraz izan dadin bideak urratzea, udalerrri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lurgunea osatzea eta udalerrri euskaldunen garapen sozio-ekonomiko eta sozio-kulturala bultzatzea.

Maite


ra dela uste dut. Halere, gizakiok ez gara bakarrik bizi eta San Martzialgo inguruneak ere beste biztanle batzuk ditu. Zuhaitzek eta txoriek ere badute ondo izateko aukera eta azkenengo urteetan San Martzialgo erromeriaren ondoren inguru horiek zela geratzen diren ikusita, ez dakit ba nik urte osoan zehar inguru paregabe horietan bizi direnak gustura ibiliko direnik. Beraz, San Martzialen guztiok ondo pasatzeko, hots gizakiok eta naturak, ezinbestekoa da ondoko zaintzea eta norberaren zaborrak dagokion tokian lagatzea.

Ander

San Martzialetan ingurumena zaindu

Beste behin ere San Martzial eguna ospatzeko bergarrok. Urtero moduan herriko hainbat lagun anaiartean eta giro alai belduko gara. Egun pozgarria eta alai izan dira betidanik San Martzialak bergarar guztiontzat. Egun horretan berdina nor zaren edo nondik zatozen, Bako jainkoaren eraginez edo uztailleko egun beroen erruz, urte osoan zehar aurpegira ia begiratu ere ez garen bergararrok betiko lagunak izango bagina moduan aritzen gara erromeriak irauten duen egun guztian zehar.

Hori herri gutxitan ematen den zerbait da eta kolore eta izaera desberdineko herritarrek horrela ikusteak benetan poza ematen du. Hori ezinbestez mantendu behar dugun ohitu-





ELKARTEEN TXOKOA

POL-POL MENDIZALE TALDEA

Bergarako mendizaleen zerbitzura
66 urte lanean etenik gabe

Maiatzaren lehenean lau eguneko irteera burutu zuten Leoneko mendietara.

Pol-Pol elkarteak 1942an sortu zen. Oilagorra eta Aizkar tabernetan egiten zituzten lehenengo bilerak eta ondoren Komenio kaleko elizaren etxera igaro ziren, eta bertan jarraitzen dute. Mendizale elkarteak zazpiahun bazkide ditu gaur egun.

Bizirik eta erronkaz beterik segitzen du Pol-Pol mendizale elkarteak, hamaika ekintza antolatuz eta etorkizunera baikortasunez begira. Gaur egun zazpiahun bazkide ditu, horietatik bostehun daude mendian federatuta. Lau sekziotan banatzen du bere jarduna Pol-Pol elkarteak: argazki taldea, eski taldea, mendia bizirik ekologistak eta mendi taldea. Autonomia osoa du sekzio bakoitzak ekintzak antolatzeko, eta horrela egiten dute. Hori bai, ekintza gehienak mendi taldeak bultzatzen ditu.

Aurten, esaterako, Leonera egin dako irteeran ia 50 lagun elkartu ziren. "Sekulako arrakasta izan zuen irteerak eta Bergara, Oñati, Arrasate eta Azpeitiko jendea ere etorri zen", diote arduradunek.

Eskalada saila ere izan zuen garai baten Pol-Polek, baina dagoeneko ez du funtzionatzen. "Eskalada arloan talde sendoa sortu nahi du elkarteak; Bergaran sekulako maila dago, baina ez dugulortzen talde sendoa egiterik", adierazi digu Andoni Larrañagak.

BERGARAKO ESKALATZAILEAK ARAOTZEN

Garai baten Bergarako eskalataileek sekulako lana egin zuten Araotzeko haitzak ekipatzeko. "Oñatiko eskalataileekin elkarlanean herriko eskalataileek



Taldearen ereserkia

*Gazte maiteok goazen goitara
Galdu gabetan denborarik.
Beti alai eta beti irripartsu
Iñon hartu gabe lorik.
Gogo bizia daukanarentzat
Ezta palpatzen girorik.
Gorputzarentzat estago ezer
Mendia bezelakorik*

Musika: Miguel Bastida
Testua: Baserri

AURTEN EKINTZA UGARI

Oraingo urterako mendi irteera ugari antolatu dituzte. Nagusientzat hamar irteera egongo dira eta beste zortzi gaztetxoenentzat. Debagoieneko zein Euskal Herriko eta Espainiako estatuko mendiak bisitatuko dituzte bergararrek. Era berean, GPSa erabiltzeko ikastaro bat ere antolatu dute eta etorkizunari begira beste zenbait egitasmo jarri nahian dabilta. "Bergarako itzulia egiteko asmoa du Pol-Polek, 60 kilometrotik gora, etapa ezberdinetan egin nahi dugu itzulia mugarriz mugarri. Talde bat sortu nahi dugu egitasmoa bultzatzeko", dio Andoni Larrañagak.

SERAFIN ESNAOLA GOGOAN

Elkarteko gaurko zuzendari eta ordezkari Serafin Esnaola apaiza maitasunez gogoratzen dute: "Sekulako lana egin zuen elkartearen alde eta hark bultzatu zuen lehenengo urteetan Pol-Pol elkarteak. Trintxerpetik etorri zen Bergarara eta herrian lan handia egin zuen". Hark jarritako gogo eta ilusioarekin lanean segitzeko asmoa du mendizale elkarteak 66 urte bete dituen honetan.

Etorkizuneko erronka nagusia da Bergarako itzulia egitea mugarriz mugarri. Hori egiteko taldea antolatu dugu eta lanean dihardute

Araotzeko eskalada eskola egokitu zuten. Orduetik hona 18 urte igaro dira." Nostalgiaz gogoratzen ditu garai haiek Andoni Larrañagak, urtetan elkarteko presidente izandakoak.

Pol-Polek espeleologia taldea ere izan zuen, baina orain dela urte asko desagertu zen hura ere.



UHOLDE ESANGURATSUENAK GOGOAN · ARANTZAZU OREGI

Uholdeak Bergaran: 1593tik 1988ra bitarteko ibilbide historikoa

Azkeneko egunetan uholdeei buruz entzun eta ikusi ditugun albisteak direla eta, bururatu zitzaidan udal artxiboan gure herrian mendeetan izandako euri-jasa eta uholdeen informazioa bilatzea. Udal artxiboko datu baseetan begiratuta, hara zer aurkitu dudan!

Lehenengo aipamena da 1593koa. San Mateo egunean, irailaren 21ean, sekulako uholdea izan zen. Udalbatzak, bid e eta zubietan izandako kalteak aztertzeko, adituak izendatu zituen. Aizparrundiko zubia, adibidez, oso egoera txarrean zegoen. Garai hartan, Udalak bere gain hartu zuen bideen eta zubien konponketa.

1627an, berriz, Juan Bautista Irazabaleri egurra mozteko baimena eman zion Udalak, bere etxean uholdeak egindako hondamendia konpontzeko. Hurrengo aipamena 1651koa da: irailan uholdeak izan ziren. 1678ko azaroaren 20ko udal bileran, Zubietako zubia erdi erorita zegoela-eta, akordioa hartu zuten, behintzat, egurrezkoa egiteko.

1762ko ekainaren 16ko Udaleko osoko bilkuran, aurreko egunean uholdeak eragindako kalteen berri izateko, begiratu beharreko ondorengo bideak eta zubiak izendatu zituzten: San Juan erreka bidea, Soralezko bidea, Elosuko bidea, Arrasateko bidea eta, bereziki, Ozaetako zubia, Azkarruntzetik tejeariara zihoana.

Udalak kalteak konpontzeko dirulaguntzak onartu zituen.

Hurrengo datua 1834koa da. Urte hartan bi uholde egon ziren. Lehena, ekainaren 30ean eta, bestea, irailaren 28an. Orduan desagertu zen Santo Tomas ermita. Zubiarekin batera Santo Tomas ermita irudia San



1983ko abuztua (Juan Idígoras fondoa)



1953ko urria (Juan Idígoras fondoa)



1983ko abuztua (Juan Idígoras fondoa)

Uholdeen lehenengo aipamena 1593. urtekoa da

Lorentzoko ermitara eramatea erabaki zuten eta kanpaia, berriz, Zubikua baserrira. Santa Marinako elizan ere badago uholde horren testigantza: *“Hasta aquí llegaron las aguas”* idatzia eta marra ikus daitezke.

San Antonio ermitako liburuan ere aipatzen da: *“En la horrorosa riada que hubo en esta villa el día 30 de junio de 1834 entre otros edificios... fue también la ermita”*. Askok gogoratuko dituzue Gipuzkoan 1953an izandako uholdeak. *Semanario gráfico de actualidad* aldizkariak argazkiak argitaratu zituen. 1977an, berriz, *Ariz-ondo* aldizkari irudietan azaltzen ziren Mugertza eta Masterreka inguruak urez gainezka. Azkenak 1983an eta 1988an izan ziren.

WEB BERRIA
bergarakoartxiboa.net

Bergarako udal artxiboak web berria aurkeztu du:
bergarakoartxiboa.net



Web orria ilusio handiarekin jarri dugu martxan eta bertan artxiboan kudeatzen ditugun agiri, argazki eta bideoen berri daukatzeko era ezberdinak ere. Beste atal batean egiten dugunaren berri jasotzeko aukera dago. Baina, bertara etorri nahi izanez gero, betiko lekuan jarraitzen dugu, San Martin Agirre plazan.



* Gehigarria GURE 12 ERRONKAK

GURE 12 ERRONKAK

/ 2008an EGIN NAHI DITUGUNAK /

Begarako Udalaren 12 erronkak

Begarako Udalaren asmo nagusiak dira honako hauek, agintaldia-
ren bigarren urteko erronka printzipa-
lak, baina ez bakarrik. Begarako
Udalak baditu beste zenbait asmo eta
egitasmo abian jarri nahi dituenak
eta datozen urteetan gauzatuko dire-
nak. Herritarren kezka eta galderak
erantzuten ahaleginduko da Udal
Gobernua eta oraingoan aipatuko
ditugun erronkak dira 2008an abian
jarri nahi direnak.

Horrekin guztiorrekin bergara-
ren bizi kalitatea hobetzeko asmoa
du Udalak. Herritarren ongizatea
ziurtatzea eta herrian zerbitzu aha-
lik eta gehien eskaintzea. Hauexek
dira 12 erronka nagusiak.

Los 12 retos del Ayuntamiento de Bergara

Estos son los objetivos principa-
les del segundo año de mandato del
Gobierno Municipal, aunque no son
los únicos. El Ayuntamiento dispo-
ne de otros muchos proyectos y obje-
tivos que quiere poner en marcha y
que se materializaran en los próxi-
mos años. Dar respuesta a las inquie-
tudes y preguntas de los ciudadanos
y ciudadanas, y construir entre todos
un pueblo mejor.

Con todo, el Ayuntamiento quie-
re mejorar la calidad de vida de los
bergarenes y ofrecerles el mayor
número de servicios y facilidades.
Estos son los 12 retos del Gobierno
Municipal para el 2008.





1

BERGARA KULTURA PLANA DISEINATU



Kultura egitasmoa diseinatu eta bertan agertutako proposamena gauzatzeko urratsak eman nahi ditugu eta dagoeneko lanean dihardugu. Bergara Kultura Plana deitu diogu egin genuen proposamenari, eta horren haritik han jasotako printzipioak sakondu nahi ditugu. Udalaren asmoa da Bergara kultur erreferente bilakatzea eta horretarako egin beharrekoak zehaztu behar ditugu.

2

BERGARAREN BIZI-KALITATEA HOBETU



Bizitzeko herri atsegina bilakatu nahi dugu Bergara. Zenbait kaletan lanak egiten dihardugu, eskaintza kulturala areagotzen, urbanizazioak txukuntzen, kirol-ekipamenduak hobetzen, Mizpirualde egoitza, eguneko zentroa, San Pedro, Domingo de Irala, Kristo Obrero, San Antonioko urbanizazioak martxan daude. Kirol-ekipamenduetan belar artifizialeko futbol-zelaia martxan da eta kanpoko igerilekuen proiektua udazkene-rako izango dugu.

3

BERGARA EUSKARAZ BIZI DEN HERRIA



Euskara ezagutzen duen herria izatetik euskaraz bizi den herria izateko urratsak eman eta bultzatu nahi ditugu: euskararen udal ordenantzak onartuz, UEMAn sartuz, erabileraren aldeko konpromisoa sinatuz, *Begarako ahotsak* moduko lanak eginez. Ezinbestekoa da gure hizkuntza nondik datorren ezagutzea etorkizunean errespetatzen eta erabiltzen ikasteko. Gure asmoa da Bergara bilakatzea euskaraz bizi den herria.

4

BASERRI AUZOETAKO BIZI-BALDINTZAK HOBETU



Baserritarrak ezin ditugu ahaztu. Horrexegatik haien ongizaterako erremintak jarri behar ditugu. Zenbait proiektu baditugu abian: baserrietara edateko ura eramateko proiektua, baserrietarako bideen konponketa eta beste zenbait. Era berean, *Berpiztu* programaren bidez baserri-auzoak berpizteko beharrezko ekimenak planifikatzen ari gara dagoeneko.



5

AHT-REN GAINEKO INFORMAZIOA HEDATU



AHT proiektuaren gaineko informazioa hedatu nahi dugu herrian, uste dugulako informazio asko falta zaiela herritarrei. Herritarrek egitasmoaren nondik norakoak jakin behar dituztela uste dugu eta horrela izan dadin egingo dugu lan.

6

HERRITARREN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO POLITIKAK GARATU



Sektoreka eta interes-taldeka, gutxienez dagozkien gaietan herritarrek Udaleko jardunean parte hartzeko bidea jarri nahi dugu. Betiere, gestio parte hartzaileantantz urratsak emanez. Gaiak mahai-ganean jarri ahala kontrasteak egiten ditugu dagozkien taldeekin. Era horretako dozentzara bilera egin ditugu aurten eta urrats kualitatiboak emateko asmoa daukagu oraingo urtean.

7

HERRIKO GAZTE-PLANA ABIAN JARRI



Gaztediaren diagnostikoa egiten eta hortik abiatuta gazteek interesekoak dituzten ekimenak planifikatu eta garatu nahi ditugu. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean ari gara lan hori burutzen. Lehen diagnostikoa esku artean daukagu eta orain hori aztertzen ari gara neurriak hartzeko eta proposamenak egiteko.

8

GENERO BERDINTASUNAREN ALDE LAN EGIN



Genero berdintasunaren alde lanean dihardugu eta urratsak ematen hasi nahi dugu. Horretarako, Bergarako emakumeen diagnostikoa egitea izango da lehenengo urratsa. Aipatu azterketa izango da abiapuntua eta erabakiak hartzeko ezinbestekoa. Berdintasunean bizi behar dugulako eta bizi nahi dugulako.



* Gehigarria GURE 12 ERRONKAK

9

BERGARA HERRI BIZIA SORTU



Eskaintza kulturalarekin batera elkarlana bilatu nahi dugu herriko eragileek antolatu nahi dituzten ekimenetan Udalaren laguntza emanez. Mundumira, 3x3 saskibalo txapelketa, San Antonioko bizilagunek burutzen dituzten ekimenak eta beste zenbait egitasmo kultural abian jarri nahi ditugu. Auzoetako jaietako partida handitu dugu eta gure asmoa da elkarlanerako bide gehiago irekitzea.

10

HIRIGINTZA ALORREKO UDAL PLANEAMENDUA EGIN



Hirigintzaren alorrean datozen urteetarako Udalak planifikatuko duen dokumentua lantzen ari gara. Gure asmoa da eragile guztiakin etorkizun hori adostea eta urte bukaerarako onartuta izatea nahi dugu. Bergarak udal planeamendu egokia behar duela uste dugulako.

11

UDAL BALIABIDEAK OPTIMIZATU



Udaleko baliabide material eta giza baliabideen optimizaziorako bideak aztertzen ari gara. Gure baliabideak ahalik eta eraginkorrenak izateko eta herritarren eskaerei ahalik eta ondoen erantzuteko. Barrukoa abiarazi dugu eta laster izango ditugu lehenengo emaitzak.

12

DEBAGOIENEKO GAINERAKO HERRIEKIN ELKARLANA



Debagoieneko gainerako herriekin lotura estua dugu eta herri horiekin guztiakin elkarlana bultzatzea ezinbestekoa dela uste dugu. Herri bakoitzak bere berezitasunetik eskualdeari osotasuna emateko.



HIRIGINTZA

PLAN OROKORRA

Uztailean emango zaio onarpena Plan Orokorrari

Bergarako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren prozesua abian dauka Udalak. 2007ko apirilean eman zion hasierako onespina udalbatzak Plan Orokorrari eta jendaurrean jarri zuen, bergararrok alegazioak egiteko aukera izan zezaten. Udal gobernua aldatu zenean, alegazioak egiteko epea luzatu zuen eta gobernu berriak berak ere hainbat aldaketa egin zizkion txostenari. Aldaketa horietako batzuk funtsezkoak dira eta horrek behartu du Udal berria berriz ere prozesua abiatzera.

Lehenengo proposamenetik oraingora dauden aldaketa nabarmenenak dira Aholku batzordeak egindako hainbat proposamen sartu dituela, eta Zabalotegi eta Bolu lotuko zituen errepidearen proiektua ez egitea erabaki duela Udal Gobernu berriak.

Plan Orokorraren proposamen berrian, Udal Gobernuak babesten duen proposamenean, ez da Zabalotegi eta Bolu lotuko duen errepiderik aurreikusten.



Gauzak horrela, udalbatzarrak hasierako onespina eman ondoren, berriz jarriko da dokumentua jendaurrean eta bergararrok berriz izango dute aukera hilabeteko epean alegazioak aurkezteko.

Epeak betez gero, urte bukaerarako emango dio Udalak azken onarpena Plan Orokorrari eta finkatuta gedituko da datozen urteetarako hiri antolaketa arautzen duen Plan Orokorra.

BIRKOKATZE PLANA

San Migel eta San Antonioko bizilagunak birkokatzeko gestioak uztailean hasiko dira



Udalak San Antonio auzoko hainbat kale berritzeko proiektua du esku artean. Hain justu ere, San Antonio eta San Migel kaleko hainbat etxetan bizi diren bizilagunak bukatzeaz dauden babes ofizialeko etxeetan birko-

katuko ditu Udalak, eta ondoren etxe zaharrak eraitsiko ditu. Horrela, orain arte egindako lanei jarraipena eman eta San Antonio auzoa eraberritzeko prozesua garatuko du Udalak.

Nahiz eta gestioak aurreratuta izan, datorren uztailean hasiko da Udala kale horietako bizilagunei birkokatzeko proposamenak azaltzen eta adostasunak bilatzen. Eta adostasunak bilatutakoan, bizilagunak beraien etxebizitza berrietan kokatuko ditu.

Honekin batera, San Antonio eta Martoko lotzen dituen ibilbidearen proiektua jarri da martxan ekainaren 16an.

LABURRAK

Mugikortasun Planaren diseinua abian ekainean

Udalak herriko mugikortasuna bideratzeko eta hobetzeko planaren diseinuari ekin dio ekainean. Pasa den urtean egindako diagnostikoan oinarrituta, herriko mugikortasun baldintzak hobetzeko egin beharreko ekin-tzak zehazteari ekin dio.

Besteak beste, aparkalekuak, ibilbideak, oinezkoentzat pasabideak eta garraio publikoaren beharrak aztertuko ditu planaren bitartez. Datozen urteetarako alor honetan egin beharreko proiektuak zeintzuk diren eta lehentasunak non dauden zehaztuko ditu Udalak.

Bolu auzoan ibiltzeko erraztasuna aztergai

Bolu auzoan erraz ibiltzeko arazoak daude bere kokalekua eta erdigunearekiko daukan altuera diferentzia dela eta. Horren harira, hainbat iritzi, iradokizun eta proposamen egin dizkiote auzotarrekin Udalarik.

Bergarako Udala Bolu auzoko irisgarritasuna hobezaz proposamenak aztertzen ari da. Ez da egun batetik besterako azterketa eta mahai gainean jar daitezkeen proposamenak ere epe ertain-luzean garatzekoak dira. Beraz, Bolun erraz ibiltzea ez da posible izango epe motzean, baina Udala gaia aztertzen ari da eta aukeraren bat hobesten duenean bertako auzokideekin batera aztertuko du proposamena.



OFERTA DEPORTIVA

La nueva oferta deportiva contará con muchas novedades



El Departamento de Deportes del Ayuntamiento está trabajando en el diseño de la oferta deportiva de cara a la temporada 2008/2009. Los responsables municipales quieren diseñar y dar a conocer dicha oferta para el mes de julio, pero no será hasta septiembre cuando se abra el plazo de inscripción.

**PLAZO DE INSCRIPCIÓN:
DEL 1 AL 11 DE SEPTIEMBRE**

Dicho plazo se abrirá el uno de septiembre y todos los interesados podrán apuntarse en la especialidad que deseen. Una vez finalizado el plazo, y si la demanda supera la oferta, el Ayuntamiento realizará la selección mediante un sorteo. Además, del 22 al 29 de septiembre se abrirá un pla-

zo para todos aquellos que deseen ocupar las plazas vacantes. En total se ofertarán cerca de 1.300 plazas de varias modalidades deportivas. Eso sí, con la intención de que los alumnos tomen parte en dichos cursos, se pasará lista y todos aquellos que no acudan con asiduidad serán expulsados.

WEB INFORMATIVO

Para facilitar la información sobre la oferta deportiva de Bergara el Departamento de Deportes pondrá en marcha a partir de septiembre una página web, www.agorrosin.net, donde los interesados podrán consultar toda la información del citado departamento.

Actividades acuáticas
Escuela de natación para adultos y escuela de natación Dos sesiones semanales. cada trimestre se realizará un control para evaluar los conocimientos adquiridos por los participantes.
Natación para niños 0-3 años Fines de semana incluido
Otras actividades
Spinning y aerodance
Para los trabajadores que trabajen a relevos se ofrecerán cursos de spinning
Pilates, yoga, acu aerobic, gimnasia de mantenimiento y gimnasia para personas de la tercera edad
Nueva oferta
Tai-chi, body-balance, bailes latinos y batukagazte konbi

LABURRAK

Ipintza futbol zelai berriko lanak hasi dituzte

AMENABAR enpresak abiarazi ditu Ipintza futbol zelai berriko lanak. Lanon aurrekontua izango da 700 mila euro. Bergarako Udalaren asmoa da ekainean, irailean eta abuztuan obra guztiak egitea eta denboraldi berri-rako futbol zelai berria prest edukitzea. Argiteria berrituko da eta 2000 wateko 6 foku izango dituzten 10 metroko 4 dorre ipiniko dituzte. Gainera, ureztatze automatikoa jarriko dute eta horretarako 47 metro luzeko tiroa duten 6 ur kainoi jarriko dira. Lanik zailena, ordea, lur zoruarrena izango da, topografoek egingo dutena. Planimetria zehatza lortu behar da ondoren gainean ipiniko den belar artifizialaren alfonbra zabala ondo itsatsi.

Kirol eskaintza arrakastatsua

Kirol arloko arduradunak kirol ikastaroetan izandako parte hartzea aztertzen ari da, eta 1.100 pertsona inguruk esku hartu dute aurtengo ikasturteetan. Gainera, parte hartzea bultzatzeko metodologia aldatu dute kirol bultzatzaileek eta asistentzia indartzea lortu dute.

Hirunako lehen txapelketa Bergaran

Kaleko saskibaloiko txapelketa antolatu dute Bergara Kirol Elkarteko saskibaloiko lagunek. Partidak herriko plazan jokatuko dira eta horretarako plazaren itxura goitik behera aldatuko da. Txapelketa uztailearen 11tik 13ra bitarteko asteburuan jokatuko da.

Lehen San Martzial 24 orduko futbito txapelketa

San Martzialeko asteburuarekin bat eginez, BTLs futbol taldeko lagunek uztailearen 4an hasi eta uztailearen 5eko gauean amaituko den 24 orduko areto futbol txapelketa antolatu dute. Txapelketa Udala Pilotalekuan jokatuko da.

KIROLA



KULTURA

MUNDUMIRA

Mundumira inoiz baino arrakastatsuago Bergaran



Alpha Blondyren kontzertua.

Munduko kulturen festaren balorazio guztiz positiboa egin du Udalak. Ekainaren 6tik 8ra bitarteko asteburuan izan da aurten, eta eguraldi eta giro onari herritarren parte-hartze handia gehitu zaio.

Guztia prest egon da jaialdiaren arrakasta ziurtatzeko. Orotariko azokak, eskulangintza, munduko hamai-ka tokitako gastronomia, estilo guztietako musika eta hainbat ekitaldi barne hartzen zituen egitarauak hiru egunetan zehar. Bergarako kaleak jendez bete dira egunez zein gauez, eta giroa ezin hobea izan da. Askoren esanez, festak bere puntu gorena Alpha Blondy taldearen emanaldian izan zuen.

ARRAKASTAREN OINARRIAN, ASKOREN ELKARLANA

Jaia aurrera ateratzeko ahaleginetan Bergarako Udala Debagoieneko Mankomunitatearekin, *Euskal Herria* aldizkariarekin eta Gin Tonic enpresarekin aritu da elkarlanean. Egin beharreko lana eta bideratu beharreko baliabide material nahiz pertsonalak ez dira gutxi izan, baina emaitzak balantza orekatu du, gus-tura baitaude antolatzaile zein esku-hartzaileak.

Bestalde, herriko eragileen partaidetza sustatzea ere izan du Udalak xede, guztiek euren tokia eta ahotza izan zezaten laugarren Mundumiran.

SAN MARTZIALAK

San Martzialetako egitarauak iragana eta oraina uztartu nahi ditu

Urtero bezala, aurten ere Jai batzordeak San Martzialetako egitaraua antolatu du. Batzorde hori teknikariek, alderdi politikoetako kideek, herriko eragileek eta herritarrek eurek osatzen dute, eta guztiak, haur zein nagusi, kontuan hartzen dituen ekitaldiak prestatu ditu: igoera, dantzak, bertsoak, abestiak, haurrentzako jolasak, herri kirolak eta, jakina, erromeria.

OHITURAK EGUNERATUZ

Aurtengo berrikuntza nagusia tradizioan bertan datza, ohiturak berreskuratzeko asmoa baita nagusi. Festaren amaierako jaitsiera indartzeko asmoz, txistulari, dultzainero eta trikitilariak, txarangarekin batera, Askatzu baserrira igoera, Santa Marinara jaitsiera eta handik plazarako bidea egingo dute, arin-arina eta fandan-goa bidelagun.

LABURRAK

Uztaileko ostiral gauak musikaz jantziko dira

Datorren uztailean, asteburuei harrera egiteko, kontzertuak izango dira Espoloian ostiral gauetan, 22:30ean. Bertan jazz, bluesa, funkya eta beste hainbat musika estilo izango da entzungai.

Gazteentzako udako irteerak antolatu dituzte

Hiru irteera izango dira: raftinga, Aquaparkera bisita eta Urdai-bain kanoetan ibiltzeko aukera. Uztailearen 9an eta 23an eta abuztuaren 6an izango dira, 20 euroko prezioan. Izena Bergarako kultura etxean eman behar da.

Abuztuan zinema emanaldiak izango dira kanpoan

Abuztuko ostegunetan, 22:00etan, ondorengo pelikulak emango dira kanpoan: *Un puente hacia Therabita*, *Donkey Xote*, *La búsqueda* eta *The horror bus*, bi euskaraz eta bi gaztelaniaz.

Bederatzigarren Txotxongilo Mostra ospatuko da Bergaran

Bi urtetik behin antolatzen den Txotxongilo Mostra urriaren 2tik 5a bitartean ospatuko da aurten. Bederatzigarrena izango da eta prestaketak egiten hasi dira dagoeneko.



EGUNEKO ZENTROA

Plaza gehiago izango dira Bergarako eguneko zentroan

Gaur egungo eguneko zentroa Boni Laskurain pasealekuko pertsona nagusien etxean -San Joxepe elkarteak erabiltzen duen egoitzan- kokatuta dago, eta hamar plaza ditu. Nabarmena da Bergararen tamainako herri batentzat plaza kopuru hori ez dela nahikoa, eta azken hilabeteotan hamar pertsona baino gehiago izan dira itxaron zerrendan. Hau da, eskaera eskaintza baino nahiko handiagoa izan da.

Egoeraren larritasuna ikusita, Gizarte Zerbitzuetatik irtenbide azkar bat aurkitu behar dela uste dute. Gaur egungo zentroa aztertu ondoren eta ikusirik handitzeko aukera

badagoela, egokitzapen lanei ekitea erabaki du Udalak. Handitze horrekin eguneko zentroaren edukiera 20/25 pertsona izango da, gaur egungo eskaintza bikoiztuz.

Lanak aurrera eramateko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarri da Bergarako Udala. Izan ere, menpekotasun arazoak dituzten pertsonen zaintzaren eskuduntza zein erretiratuen etxearen eraikina erabilpena Aldundiarenak dira.

Diputazioak Udal Gizarte Zerbitzuen diagnostikoarekin bat egin du eta pausoak ematen ari da handitze lanei lehenbailehen ekiteko.



AKORDIOA

San Joxepe elkarteak eta Udalak hitzarmena sinatuko dute



Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Boni Laskurain kaleko erretiratuen etxearen erabilera adostu dute. Eguneko zentroaren instalazioek Diputazioaren ardurapean jarraituko dute, eta gainerako gelak Udalaren eskuetara igaroko dira. Diputa-

zioak ere hainbat hobekuntza egiteko konpromisoa hartu du (saneamendua, komunak, instalazio elektrikoak...).

Udalak kudeatuko duen arloari dagokionez, asmoa da San Joxepe elkarteak bere egoitza bertan mantentzea, eta horretarako Udalak eta elkarteak hitzarmena sinatuko dute.

Eguneko zentroa handituta, erretiratuek gela bat galdu dute eta, horren ondorioz, lehenengo solairuko gela banaketa aldatzeko aukera aztertu du Udalak, San Joxeperen beharretara ahalik eta ondoen egokitzeko.

LABURRAK

Dirulaguntza deialdia
Bergarako elkar-teentzat

Datozen asteotan Bergarako Udalak gizarte zerbitzuen arloan diharduten elkar-teentzat 2008ko dirulaguntzak eskatzeko epea zabalduko du. Interesa duten elkarte guztiek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzok.

Droga-mendekotasun
tratamendurako
dirulaguntzak

Aurten droga-mendekotasunen tratamendurako dirulaguntzen oinarrietan honako aldaketak onartu dira: laguntzak beste mendekotasun psikologikoen tratamendura ere zabaldu dira eta tratamendua hasi aurretik kalte-tuen senitarteko edo lagun batek ere eska dezake, arazoari hobeto aurre egiten laguntzeko. Dirulaguntzak eskatzeko Udal Gizarte Zerbitzuetako Prebentziorako Zerbitzura jo behar dute interesatuek.

Sahararik eta Txernobiletik
umeak etorriko dira
aurtengo udan

Urtero bezala, Sahararik eta Txernobiletik hainbat ume etorriko da gurera uda pasatzera Bergarako familiek. Udal ordezkariak espero dute umeek gure artean ondo pasatzea, eta elkartasun keinu hori egiten duten Bergarako familien jarrera txalotu nahi dute.

Laguntza psikologiko
eskaintza gurasoentzat

Gurasoentzat laguntza psikologiko zerbitzua urrian hasitzen, eta ordutik apirila bitartean 66 kontsulta izan ditu. Gogoratu uzta-laren bukaera arte kontsultak egiteko aukera izango dela ostegunetan 11:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik-17:00etara. 944051549 telefonora deituz eta www.bergara.net webgunearan bitartez. Irailetik aurrera ere zerbitzua izango da.

GIZARTEA



EUSKARA

HITZARMENA

Euskararen erabilera bultzatzeko hitzarmena sinatu dute Udalak eta herriko zenbait entitatek



Akordioaren sinatzaileak.

Herrian euskararen erabilera bultzatzeko eta sustatzeko asmoarekin Bergarako Udalak eta herriko 80 entitatek hitzarmena sinatu dute. Sinatzaileen artean askotariko elkarteak daude: kultur arlokoak, kirol taldeak, gobernuz kanpoko erakundeak, eskola eta ikastolak, eta guztion helburua da euskara berreskuratzea, modernotzea eta hedatzea.

Horretarako zenbait konpromi-

so hartu dituzte. Besteak beste, elkarre eta entitate horietako arduradunek euskararen ezagutza edo hizkuntza gaitasuna bultzatuko dute. Zuzendaritza organoetan eta herritarrekin zein gazteekin harreman zuzena duten langintzetan euskaraz dakiten pertsonak jarriko dituzte.

Era berean, elkarre horiek euskararen barne erabilera sustatuko dute, barne administrazioan eta

zuzendaritza organoetan. Euskararen kanpo erabilerari dagokionez: errotuluak, inprimakiak, bazkide txartelak, zigiluak, fakturak eta gainerakoak euskaraz jarriko dituzte eta elkarre arteko harremanak euskaraz egiten ahaleginduko dira.

Udaleko Euskara Zerbitzuak egingo du hitzarmenaren segimendu eta dinamizazioa eta iraupena lau urtekoa izango da.

AURKEZPENA

Mende eta laurdeneko historia protagonisten berbetan

Begarako Udaleko Euskara Sailak aurkeztu du *Begarako ahotsak* bilduma. Azkeneko 25 urteetan Bergarako euskara jaso eta lantzeko egin diren grabazioak jasotzen ditu eta herritarren eskura jarri ditu Udalak.

BILDUMAREN EZAUGARRIAK

Begarako ahotsak bildumaren abiapuntua 1983an kokatzen da, ordukoak dira-eta lehenengo grabazioak. Joan Martin Elexpuruk, Gerardo Elortzak, Jaione Isazelaiak eta beste zenbait lagunek jarri zuten martxan egitasmoa. *Begarako euskera* liburu ederra izan zen lehenengo emaitza.



Gerora beste zenbait liburu argitaratu ditu Udalak eta oraingoan ikusentzunezko bilduma ederra aurkeztu dute. Bertan 140 herritarren grabazioak aurki daitezke: 225 ordu daude grabatuta eta horietako asko bideoan gainera. Grabazio zaharrena 1983koa da eta hiztunik zaharre-

na, berriz, 1888an jaiotakoa. Dokumentu aberatsa da euskararen erabileraren ikuspegitik eta baita mende eta laurdeneko historiaren berri ematen duelako. Material guztia herritarren eskura jarri du Udalak, *ahotsak.com* webgunearen bitartez. Herritarrek samur eta eroso aurki ditzakete entzun eta ikusi nahi dituzten pasarteak. *Ahotsak.com* proiektuan Euskal Herriko zenbait herrik parte hartu dute. Horien artean, Debagoieneko askok. Hori bai, Bergarako da bildumatik aberatsenetakoa; izan ere, grabazio kopurua beste inon baino handiagoa izan da.



UDALBATZARRAK

Bergarako Udaleko osoko bilkuretan azken hilabeteotan hartu diren erabaki garrantzitsuenen zerrenda.

2008KO URTARRILAREN 28KO UDALBATZARRA

- **OSASUNA** Iturri gorri elkarteak Osakidetza-ri hezurmuin emaileen inguruan egindako eskaerari atxiki zitzaion Udala.
- **TORTURA SALAKETAK** Igor Portu eta Mattin Sarasolak salatutako torturen aurkako mozioa onartu da.

2008KO OTSAILAREN 11KO UDALBATZARRA

- **EPAITEGIAK JASANDAKO ERASOA AZTERTZEKO ZENBAIT MOZIO** Bergarako epaitegiaren aurka egindako erasoaren inguruko lau mozio eztabaidatu dira eta ez da bat bera ere onartu.
- **EAE/ANVri ELKARTASUNA** EAE/ANV alderdiaren suspentsioaren aurkako mozioa onartu da.
- **ATXILOKETAK** Zenbait militante independentistaren atxiloketen aurkako mozioa onartu da.

2008KO OTSAILAREN 25KO UDALBATZARRA

- **BALDINTZA-PLIGUEN ONARPENA** Labegaraietako kiroldegiko taberna ustiatzeko baldintza-pleguak onartu dira.
- **AURREKONTUEN ONARPENA** 2008ko udal aurrekontuak onartu dira.

2008KO APIRILAREN 28KO UDALBATZARRA

- **EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANA** Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren 2008-2011 epealdirako proposamena onartu da.
- **HORMA HILOBIAK** Kolunbarioak arautzeko udal ordenantza onartu da.
- **EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA** Genero Indarkeria kasuetarako babes-etxea irekitzeko araudia onartu da.
- **GARAJE SALMENTA** 20-A Exekuzio Unitatean 56 garaje-plaza saltzeko baldintza-plegua onartu da.
- **AHTren AURKAKO MOZIOA** AHTren aurkako mozioa onartu da, Elkarlanak sartutako mozioaren bidez.
- **IZENDAPENA** Bergara genetikoki aldaturiko organismorik gabeko eremu libre izendatu da, EHNEn eskaeraz.

- **MOZIO ETIKOA** EAJ/PNV eta PSOE-EE alderdiek aurkeztutako dimisio-mozioa aztertu da eta ez da onartu.

2008KO MAIATZAREN 26KO UDALBATZARRA

- **AMILLAGAKO BIRIBILGUNEA** Udalak GFaren esku utzi ditu Amillagako biribilgunea egiteko behar dituen lurak.
- **KARGU UZTEA** EAJko zinegotzi Belen Abarzuzak bere kargua uzteko eskaera egin du.

2008KO MAIATZAREN 30KO UDALBATZARRA

- **ALEGAZIOAK** Udalak bi alegazio aurkeztu dizkio Eusko Jaurlaritzaren errepideen bigarren plan orokorraren berrikuspenaren aurrerapeneko dokumentuari.
- **INGURUMEN INPAKTUAREN AZTERKETA** Udalak AHTren inguruko ingurumen-inpaktuaren beste azterketa bat egitea eskatu du. Izan ere, ADIFek aurkeztutako proiektua ez dator bat lehendik egindako azterketarekin, eta horrexegatik eskatu du berria.

UDALBATZARRAK

KULTURA AGENDA

UZTAILA > IRAILA



UZTAILA

> **UZTAILAK 4, 11, 18, 25 / 22:30**
ESPOLOIKO KONTZERTUAK
U.4 Phonk Clubbin Criminals
U.11 JJ Band, Jazz flamenkoa
Andaluziatik
U.18 Jose Luis Pardo & The Mojo
Workers
U.25 Terela Gradin (jazz abestua
Galiziatik) eta G.E.M Trio

> **UZTAILAK 5 / 19:00**
Bonba japoniarrak
/San Martin plazan
Ondoren: buruhandi eta
erraldioen KALEJIRA, Elgoibarko
dultzaineroek lagunduta.
Ibilbidea: San Martin plaza,
Bidekurutzeta kalea, San Pedro,
Artekale, Arruriaga, Masterreka,
Bideberri, Irizar pasealekua,
Barrenkale eta San Martin Agirre
plaza.

> **UZTAILAK 6**
San Martzialgo erromeria
/San Martzialgo zelaietan

> **UZTAILAK 10**
• San Kristobal jaiak
/ Aldaiegia auzoan
• Helduentzako ipuin kontaketa:
"Kondo bakoitzak bere
istorioa dauka". Jose
Mari Carrererekin
/ 19:00 / Aroztegi aretoan

> **UZTAILAK 12 / 19:00**
Umeentzako emanaldia
/Munibe plazan

> **UZTAILAK 13**
• Bergarako Udal Txistulari
Bandaren kalejira
/ 09:45 / Bergarako kaleetan
• Bergarako Udal Musika
Bandaren kalejira
/ 11:30 / Bergarako kaleetan
• Bergarako Udal Musika
Bandaren kontzertua
/ 12:30 / Udal pilotalekuan

> **UZTAILAK 18**
• Santa Marina jaiak
/ Oxirondon
• Aritzeta abesbatzaren kontzertua
/ 19:45 / Santa Marina parrokiaren

> **UZTAILAK 19**
• Santa Maria saria jubel
mailako txirrundulari lasterketa
/ 16:30
• Donostiako Mariaren Bihotza
abesbatzaren kontzertua
/ Mariaren Lagundiko elizan
• DJ Anjierekin disko festa
/ Gauean / Matxiategin

> **UZTAILAK 25**
Basalگو eta Goimendi auzoetako
jaiak

> **UZTAILAK 27 / 09:45**
Bergarako Udal Txistulari
Bandaren kalejira
/Bergarako kaleetan

ZINE KLUBA / Gaztetxean /
Gaia: erotika

> **UZTAILAK 3 / 21:30**
Lucia y el sexo.
Zuzendaria: Julio Medem

> **UZTAILAK 10 / 21:30**
Deseando amar.
Zuzendaria: Wong Kar-Wai

> **UZTAILAK 17 / 21:30**
Historia de 0.
Zuzendaria: Just Jaeckin

ERAKUSKETAK

Aroztegi aretoa

> **ESTHER ASTARLOA**
ZERAMISTAREN ERAKUSKETA
uztailaren 4tik 27ra

Kultura etxea

> **RIKARDO AZKARGORTAREN**
IKASLEEN PINTURA ERAKUSKETA
uztailaren 14tik 24ra

> **ABUZTUAK 14**
Donkey Xote

IKASTAROAK

> **TXALAPARTA IKASTAROA**
/ Uztailak 1, 3, 8, 10 / 19:00 - 21:00
Izen-ematea Jardun-en (943 76 36 61)

GAZTEEN UDAKO IRTEERAK

/ Irteerako plaza kopurua: 50
pertsona (zozketaz)
/ Prezioa: 20 euro
/ Izen-ematea: Bergarako kultura
etxean, 943 77 91 59 telefono
zenbakian

> **UZTAILAK 9**
Ebro ibaitik rafting-a 13-18 urteko
gazteentzat.
Izen-ematea:
ekainaren 25a baino lehen

> **UZTAILAK 23**
Arcachong-eko (Frantzia) aquapark-
era 12-18 urteko gazteentzat.
Izen-ematea: uztailaren 9a baino
lehen

> **ABUZTUAK 6**
Kanoa zeharkaldia Urdaibain 12-18
urteko gazteentzat.
Izen-ematea: uztailaren 23a baino
lehen

ABUZTUA

> **ABUZTUAK 10**
San Lorentzo auzoko jaiak

> **ABUZTUAK 15**
Andramari eguna Elizamendin
/ Angiozar

> **ABUZTUAK 16**
San Roke, Bergarako patroia

> **ABUZTUAK 24**
Zabaletamendiko jaiak
/ Angiozar

AIRE LIBREKO ZINE SAIOAK /
San Martin plazan

> **ABUZTUAK 7 / 22:00**
Un puente hacia Terabithia
/ gaztelaniaz

> **ABUZTUAK 14 / 22:00**
Donkey Xote / euskaraz

> **ABUZTUAK 21 / 22:00**
La búsqueda / gaztelaniaz

> **ABUZTUAK 28 / 22:00**
The horror bus / euskaraz

ERAKUSKETAK / Aroztegi aretoa

> **EUSKAL AKUARELISTEN**
ELKARTEAREN ERAKUSKETA
Abuztuaren 1etik 24ra

> **TXOMIN AMASORRAINEN**
ERAKUSKETA
Abuztuaren 29tik irailaren 16ra

IRAILA

> **IRAILAK 15, 16**
San Martin Agirre jaiak

> **IRAILAK 16**
Bergarako Udal Musika Bandaren

kalejira eta ondoren kontzertua
San Martin plazan.

> **IRAILAK 26-28**
San Migel jaiak / Angiozar

ERAKUSKETAK / Aroztegi aretoa

> **TXOMIN AMASORRAINEN**
ERAKUSKETA
Abuztuaren 29tik irailaren 16ra

> **KIROL ARGAZKI LEHIAKETAKO**
LANEN ERAKUSKETA
Irailaren 19tik 28ra

ORDUTEGIAK:

- ERAKUSKETAK / Aroztegi aretoa / Asteartetik ostiralera: 18:00-20:30 / Larunbatetan: 12:00-14:00 / 18:00-20:30 / Igandetan: 12:00-14:00
- Kultura etxea / Asteleheneretik ostiralera: 18:00-21:00 / Larunbatetan: 12:00-14:00

BERGARAKO UDALA
San Martin Agirre plaza, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel.: 943 77 91 00
Faxa: 943 77 91 63

www.bergara.net